

«Sañu»

Joxean Agirre

Sarrionandiak bere haurtzaroaz ari zela, «Ez da Danubio deitzen, ez da Mississippi, Ibaizabal deitzen da nire sorterriko ibaia», esan zuen bezalaxe, guk ere esan genezake ez dela Aizkorri eta gutxiago K2, *Sañu* deitzen dela gure haurtzaroko mendia.

Azken nobelan oso labur kontatu nuen, aitonaren exodoa ere, gure familian egin den balentriarik handiena, eremu horretan kokatzen da, Aizarnako Anatsandik Azpeitiko gure jaiotetxera egin baitzuen bidaia, hutsa, 15 kilometro gehienez, *Sañu* igo eta jaitsi. Onak zeuden gure familian urruneko kontinenteak konkistatzeko! Auzo berrian, Txillarramendin, etxe bakoitzean bertsolari bat aurkituko zuten. Horkoak ziren Txapel eta Zepai, horkoa zen Patxi Iturzaeta eta Saberrin bizi zen umetatik Joxe Liza-

so ere. Azken honen errautsak *Sañuko* gurutzetik gertu daude, berak hala eskatuta, hesiz babestutako txoko batean.

Sañuko gurutzearen kontra sailak genituen. Handik itsasoa ikusten da eta umeak ginela, hondartzara ordeztu hara joaten ginen lanera, laguntzera edo enbarazu egitera eta amak itsas kolorea hartzen genuela esaten zigun, itsasoa hogeita hamar bat kilometrotara dagoen arren, gure ama oso baikorra baitzen.

Auzo berrian, Aizarnakoan ez bezala, argindarra zuten, Akamendiko turbinak ekoitzia eta tarteka, zuhaitzen batek kableak jo zituelako edo, argia joaten zenean ume andana elkarrekin ilunpetan joaten ginen bizkar batera eta «Migeeeee!» hots egiten genion Errezilgo mugan argi erregistroa zaintzen zuen mutilzahar-ri eta miraria badirudi ere (halakoxea izango zen isiltasuna, gurean ez baita

sopranorik eta tenorerik), entzun egiten zuen eta «zeeeeer?» erantzuten zuen eta «argiyeeeeee» esaten genion eta argia itzuli egiten zen.

Harriduraz jarraitzen ditut Statkraften parke eolikoari buruzko berriak eta txunditu egiten nau errota eoliko bakar bat Azpeiti osoko argi premiaren erdia osatzeko gai izango dela jakiteak.

Inguruan bizi diren baserritarrei (tar-tean bada hara bizitzera joandako kale-tarren bat edo beste ere) eguneroko paisaia hondatuko die proiektuak, guri haurtzaroko mundu poetikoa hondatuko digu, besterik. Eta negu beltzean haize bortitzen batek etxeko kristaletan joaz esnatzen banau, Prometeo erraldoiak jainkoei sua bezala, *Sañuko* erraldoiak jainkoei argindarra lapurtzen arituko direla pentsa nezake, berogailuen epele-an berriro lokartzen naizen bitartean. •

Dokumental hau ikusita daukat

Amagoia Mujika
Telleria

Baloiarekin ari dira, mutiko taldea. Builoso kuadrilla. Ondo pasatzen ariko dira igual, baina oihuak, maldizioak, bultzadak, ostikoak gero eta ozenagoak dira. Algarak ere nabarmenak. Jolasaren muga pasatzen ari direla iruditzen zait, jostatzearen eta elkarri mina ematearen arteko marra ikusezin hori. Honezkero nabarmena da baten batek negarrez amaituko duela. Etxekoak balira honezkero egin nien orro bat. Baina ni hemen bankuan eserita dagoen señoa bat baino ez naiz, irakurtzen saiatzen haurtzaroa den oihan iskanbilatsuaren izkina honetan.

Bada, bai, joan ninteke beste toki batera, baina uste dut jakin-mina dudala jolasaborroka nola amaituko den. Animalien dokumental bati begira dagoena nola.

Handikote builoso hori orain arte oharkabean zebilen lotsati plantako horri oldartu zaio. «Zergatik zabilta beti baloitik ihesi? *Que puto gay*». Kakaputza, dokumental hau ikusita daukat. Eta ni hemen denbora galtzen!

Umetan ikusi nuen lehen aldiz, ikastolako jolasgaraian. Pilotalekuko paretaren kontra jaurtitzen zuten baloia, nork indartsuago, nork kolpe ozenagoa. Eta gutako batzuk, txaparen azpian uzkur-

tuta. Jolasa horrela omen zen. Nerabeza-roan ere askotan ikusi dut dokumental hori. Parranda giroan, gizonkote kuadrilla, elkar astintzen. Baloiaren ordeztuagoak tartean. Zein builosoago, zein indartsuago, zein aldrebesago.

Ordutik hainbeste aldatu naiz ni, kasik sinetsita nengoela dokumental horiek eta jokabide horiek dagoeneko ez zeudela modan. Eta hara non konturatu naizen oraindik dozena bat urte pilatu ez dituzten mutiko horiek lokatz beraren gainean ari direla bizitza ibiltzen. Eta pentsa zenbat pauso dituzten emateko oraindik. Akaso garaiz gabilta. •